



DEBAko UDALA

2016SPLE0011
11. BILERA: OHIKOA 2016-09-29

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hamaikagarrena

Eguna: 2016/09/29

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 19:50

Onarpen-eguna: 2016/11/02

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA
AITOR SALEGI IRURETA
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA
M^a LUISA ALBIZU BEITIA
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN
AIMAR LASA URKIRI
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE
UNAI LEKUBE ARANBERRI
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/07/28).
2. AU 18, xehetasunen azterlana. Behin betiko onespina emateko proposamena.
3. 2017ko taxien tarifak onartzeko proposamena.
4. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
5. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/07/28)

2016ko uztailaren 28ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

2.- AU 18, xehetasunen azterlana. Behin betiko onespina emateko proposamena.

Zinegotziek eskuartean dutena Hirigintza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamena da.


Aurrekariak

Spicer Ayra Cardan S.A.-k sustatutako eta Fernando Ansola eta Jon Bastida arkitektoek idatzitako 18.1- AU 18 lursailaren "Itziar poligonoa", Xehetasunen Azterlana izapidetzeko eskaera jaso zen Udaletxean.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan jasotzen da xehetasunen-azterketak izapidetu eta onartzeko eman beharreko urratsak:

“98. artikulua.– Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.

- 1.– Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespina hiru hilabeteko epean.
- 2.– Hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.
- 3.– Xehetasun-azterketei behin betiko onespina ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespina ematen zaienetik.



DEBAko UDALA

Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

Beraz, tramitazioari dagokionez, hasierako onarpena eman zitzaion alkatetza Dekretu bidez 2016ko uztailaren 12an.

Jarraian, jendaurrean jarri zen 20 egunez, azken argitalpenetik kontaktzen hasita. Horretarako, 2016ko uztailaren 15eko datarekin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia eta egunkarian eman zen jakitera 2016ko uztailaren 22an. Udaleko iragarki taulan ere jarri zen eta bizilagunei jakinarazpenak bidali zitzaizkien.

Legez ezarritako epean ez da alegaziorik egon, beraz behin betikoz onartuko du Udalak.

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotziak bilkuran direla, horretarako aintzat hartu du Hirigintza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamena.

Lehenengo.- Debako Arau Subsidiarioetako, 18.1- AU 18 lursaila “Itziar Poligonoa”, Xehetasun Azterlana behin betiko izaeraz onartzea.

Bigarren.- Erabaki hau Ayra Cardan S.A.ri jakinaraztea.

Hirugarren.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- 2017ko taxien tarifak onartzeko proposamena.

Aurrekariak


2005 urtean Deba Behereko erregimen bereziko eremuaren sorrera onartu zuen Foru Aldundiak (GAO, 2015-09-22) turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko.

AGITAX elkarteak bidali du txosten ekonomikoa eta 2017 urterako hiri barruko taxi zerbitzuen tarifan proposamena, Udalbatzarrak onartzeko. Proposamena da 2016 urteko tarifak mantentzea.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia

Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamenaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideak bilkuran direla.



DEBAko UDALA

Lehenengo.- 2017 urterako hiri barruko taxi zerbitzuen tarifak mantentzea:

| KONTZEPTU TARIFA | Gutxiena | Egindako kilometroa | Itxaron ordua |
|------------------|----------|---------------------|---------------|
| 1 TARIFA * | 5,0153 | 1,2559 | 16,7861 |
| 2 TARIFA ** | 5,4610 | 1,3899 | 17,6509 |

*Lanegunetan 07:00etatik 22:00etara

**Egunero 22:00etatik 07:00ak arte. Bai igande, araudi autonomiko eta lokaleko jai egunetan, larunbatetan, 07:00etatik 22:00etara bai labunbatetan, eta abenduaren 24an eta 31n.

4.-Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

| | | | |
|----|------------|--|--|
| 68 | 2016/07/21 | Elorrixa Auzoan txabola- Espedienteari hasiera ematea: Ez legestatuztat adieraztea | |
| 69 | 2016/07/21 | Miramarreko orubea: Egikaritze-agindua | |
| 70 | 2016/07/25 | Langile baten 2016ko egutegiari buruzko ebazpena | |
| 71 | 2016/07/26 | Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: Uztailaren 26tik Abuztuaren 12ra | |
| 72 | 2016/07/27 | Kontu-hartzaitza eta Idazkaritzako administrari lanpostuko funtzionarioa izendatzea, 2016ko abuztuaren 18ko balioarekin. | |
| 73 | 2016/07/28 | Liburutegiko langile baten baja ordezkatzea: Uztailaren 28tik aurrera | |
| 74 | 2016/07/28 | Eguneko Zentroko langile baten lan baimena ordezkatzea: Uztailaren 28a | |
| 75 | 2016/07/29 | Eguneko Zentrorako laguntzaileen lan poltsa eratzea. | |
| 76 | 2016/07/29 | MC Prebencion enpresari esleitzea Udalean faktore psikosozialen ebaluazioa egiteko (1.540 € BEZ kanpo). | |
| 77 | 2016/08/04 | Brigadarako 3 langileen kontratazioa: Abuztuaren 5etik 26ra. | |
| 78 | 2016/08/05 | Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 6tik 7ra | |
| 79 | 2016/08/05 | Brigadarako langilearen kontratazioa: Abuztuaren 7tik 14ra. | |
| 80 | 2016/08/08 | Liburutegiko langile baten oporrak ordezkatzea: Abuztuaren 8tik 12ra | |
| 81 | 2016/08/09 | Brigadarako langilearen kontratazioa: Abuztuaren 10etik 12ra. | |
| 82 | 2016/08/11 | Alkatearen eskuduntzak lehengo alkateordeari eskuordetzea, abuztuaren 20tik irailaren 4ra. | |
| 83 | 2016/08/12 | Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 13tik 22ra | |
| 84 | 2016/08/12 | Zezenlekuko zaindaria: Abuztuaren 16,18 eta 19 | |
| 85 | 2016/08/12 | Eguneko Zentruko langilearen oporrak ordezkatzea: Abuztuaren 17tik irailaren 23ra | |
| 86 | 2016/08/22 | Liburutegiko langile baten oporrak ordezkatzea: Abuztuaren 22tik 26ra | |
| 87 | 2016/08/26 | Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 27tik 28ra | |
| 88 | 2016/09/08 | Eguneko Zentruko langilearen opor eguna ordezkatzea: Irailaren 8a | |
| 89 | 2016/09/14 | Ezkontzarako ahalmena beste zinegotzi batzuren esku ustea | |
| 90 | 2016/09/26 | Liburutegiko langile baten oporrak ordezkatzea: Irailaren 26tik Urriaren 3ra | |

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

5.- Eskariak eta galderak.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du hutsik geratu diren etxebizitza tasatuen inguruan eta horiek esleitzeko erabiliko den jardunbidearen inguruan.



DEBAko UDALA

Alkateak erantzun du, itxaron zerrenda dagoen kasuetan hori erabiliko dela eta, ez dagoen kasuetan, oinarriak onartu eta zozketa egingo dela.

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du zabor bilketa sistema berriaren ezarpenaren inguruan.

Cristobal del Corte zinegotziak azaldu du, datorren astean finkatuta geratuko dela egutegia edo kronograma eta kanpaina nola egin. Aurreikuspena da hilabeta eta erdi barru sistema martxan egotea.

Aimar Lasa zinegotziak esan du jakin duela jolastokiak jartzeko Udalean jasotako proposamenak jendaurrean jarriko direla eta txokantea iruditzen zaiola gai hori batzordean ez lantzea.

Aitor Salegi zinegotziak azaldu du nola egingo den jendaurreko prozesu hori.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko irailaren 29an

IDAZKARIA



